



MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure enpresaren bezeroa 16 urtetik gorako pertsona da, etxeko kontsumorako ura garbi, segurua eta kalitatezkoa edatea garrantzitsutzat duena. Gure bezero-eredua osasuna, uraren kalitatea eta ingurumenarekiko ardura baloratzen dituzten gazte eta helduetan oinarritzen da. Pertsona hauei saldu nahi diegu, ur-iragazki eraginkor, fidagarri eta jasangarriak bilatzen dituztelako euren eguneroko bizitzan erabiltzeko.

Bezero horiek hainbat ezaugarri komun partekatzen dituzte. Adinari dagokionez, 16 urtetik gorako gazteak eta helduak dira. Haien interes eta balioen artean nabarmentzen dira osasuna eta ongizatea, produktuaren kalitatea, segurtasuna eta ingurumenarekiko errespetua. Prezioa kontuan hartzen dute, baina batez ere epe luzerako irtenbide fidagarriak eta jasangarriak baloratzen dituzte. Ohiturei dagokienez, etxerako produktuak online bidez edo denda espezializatueta erostera ohituta daude, eta mantentze erraza eta erabilera praktikoa duten produktuak lehenesten dituzte. Geografiari dagokionez, tokiko zein estatuko bezeroak dira, batez ere ura kalitate eskasekoa edo zalantzezkoa izan daitekeen eremuetan bizi direnak.

Bezeroak dira negozioaren funtsa, eta horregatik funtsezkoa da haien segmentazioa ondo definitzea. Segmentu hauek aukeratu ditugu, uraren kalitateari eta osasunari gero eta garrantzi handiagoa ematen diotelako eta irtenbide espezializatu bat bilatzen dutelako. Hautatutako bezero mota uraren kontsumo arduratsua baloratzen duen kontsumitzailea da, eta segmentazio horri esker gure eskaintza bezeroen behar zehatzetara egokitu dezakegu. Ez dugu merkatu masiboa hautatu, gure produktua ez delako edonorentzat, baizik eta behar jakin bati erantzuteko sortua.

Merkatu-motari dagokionez, gure enpresa nitxo osatutako merkatu batean kokatzen da. Ez diegu bezero guztiei produktu bera eskaintzen, baizik eta oso talde zehatz bati: ura modu seguruan kontsumitu nahi duten eta iragazki jasangarriak baloratzen dituzten 16 urtetik gorako pertsonari. Merkatu-mota honek aukera ematen digu eskaintza espezializatu eta kalitatezko bat garatzeko, bezeroen konfiantza eta proiektuaren arrakasta sendotuz.